

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Jendaurrean jartzea 1 poligonoko 653 lurzatiaren hirigintza hitzarmena

1 poligonoko 653 lurzatiaren jabeekin negoziatu ondoren honen eranskin gisa doan hirigintza hitzarmena, jendaurrean jarriko da gogei egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz.

Eranskina

Adierazten dute

Lehenengoa. Gasteiz Bidea izeneko kalea Dulantziko herriguneko kalerik garrantzitsuenetako bat da, herrigunearen ekialdetik mendebalderantz doana, eta haren barruan badaude espaloirik gabeko bi zati txiki (horietako bat, zenbaki bakoitien aldean 19 eta 25 zenbakidun etxeen artean dagoena, udalerriko hilerrirako irispidea dena). Baita ere, 1 poligonoko 653 lurzatiaren aurrealdea Atxako kalean dago eta jabetza A-3112 zeharbidearen mugaraino heltzen da, alde horretan espaloirik ez dagoela. Zona horretan ibilgailu astunen trafiko handia dago STS SA enpresatik A-3110eko ingurabideraino, eta horrengatik presakoa da, segurtasun eta irisgarritasun arrazoiengatik, lurzati horren aurrealdean espaloiak egitea.

1 poligonoko 653 lurzatiaren eraikuntza zahar bat dago, gaur egungo arauak antolamendutik kanpo utzi dutena, zona bat eraikinaren iparraldean eta beste bat hegoaldean, eta haren eraisketak balio ekonomikorik gabe utziko luke eraikuntza. Lurzatiaren zati handi batean ez dago eraikuntzarik.

Bigarrena. Dulantziko Udalaren nahia Gasteiz Bidea kalea urbanizatzen bukatzea da, auzoek haren hasieratik hilerriraino espaloitik joan ahal izan daitezkeen, eta Usategiko poligonoa amaitzen den lekuan 1 poligonoko 653 lurzati dago, zeina ez dagoen urbanizatuta. Baita ere, esandako lurzati Atxako kalean errepidearen mugaraino heltzen da eta ez dauka sarbiderik. Hortaz, eremu horretako irisgarritasun arazoari konponbidea emateko asmoz, hitzarmen hau izenpetzea proposatzen da.

Aurretik esandakoarengatik, aldeek, askatasunez eta beren borondatez, itundu dute hirigintza hitzarmen hau egitea, hori guztia ondoko klausula hauei loturik.

Klausulak

Lehenengoa. Hirigintza hitzarmen honen izaera.

Hirigintza hitzarmen hau, edozein kasutan ere izaera juridiko-administratiboa duena, bere edukiagatik eta helburuagatik, hirigintza betearazpenekotzat kalifikatzen da, kasu honetan, 2/2006 Legearen 7. xedapen gehigarriko 3. a) idatz zatian xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Aldeen betebeharrak:

1) Dokumentu honetako azaltze zatian jasotzen den urbanizatze jarduna burutu ahal izateko, bi aldeek bere burua behartzen dute truke kontratu bat egitera 1 poligonoko 653 lurzatiaren jabeen eta Dulantziko Udalaren artean, ondoren azaltzen den moduan:

– 1 poligonoko 653 lurzatiaren jabeek Dulantziko Udalari 653 lurzatiaren 457,75 metro koadro lagatzen dizkiote, lurzatiaren iparralde eta ekialdetik doan lur zerrenda batean, honi erantsita doan planoaren arabera, Dulantziko Udalari espaloia egiteko modua emateko.

– Dulantziko Udalak 1 poligonoko 653 lurzatiaren jabeei 248,12 metro koadroko lursail bat lagako die, gaur egun arau subsidiarioetan espazio libre pribatutzat kalifikaturik dagoena, eta 653 lurzatiaren hegoaldean kokaturik dagoena. Lursail horrek Usategi kaletik heltzeko bidea emango die 1 poligonoko 653 lurzatiaren jabeei.

2) 1 poligonoko 653 lurzatiaren jabeek lurzatiaren ekialdean dauden eraikuntza erantsiak eraitsi beharko dituzte 60 eguneko epean, hitzarmen hau izenpetzen den egunetik aurrera.

3) Dulantziko Udalak lursail horiek trukatzeko espedientea hasi beharko du 30 eguneko epean, hitzarmen hau izenpetzen den egunetik aurrera.

4) Kontuan izanik lurzatiaren atal bat eraikuntzak sendoturik ez dagoela eta Dulantziko Udalak jabeek bere garaian gauzatu beharko luketen urbanizazioaren zati bat gauzatuko duela, azken hauek lurzatiaren aurrealde eraiki gabea urbanizatzearen kostua, hau da, 12.147,43 euro, ordaindu beharko diote udalari esandako lurzatian eraikitzen denean, eta urbanizazio karga hori Jabetzaren Erregistroan inskribatu beharko da.

5) Dulantziko Udalak bere burua behartzen du urbanizazioa 2017ko martxoaren 31 baino lehenago egitera.

6) Dulantziko Udalak bere burua behartzen du erantsitako planoaren arabera lurzati horretan kokatutako pabiloian dagoen antolamendutik kanpokoa aldatzera.

7) Dulantziko Udalak utzi egin beharko ditu lurzatian gaur egun dauden zerbitzu publikoetarako harguneak.

8) 1 poligonoko 653 lurzatiaren jabeek Dulantziko Udalari baimena ematen diote urbanizazioa gauzatzeko, trukearen espedientea bukatu ez dagoen arren.

9) Trukea eskritura publikoan jasotzeagatik eta Jabetzaren Erregistroan inskribatzeagatik sortzen diren gastuak jabeen kontu izango dira.

Hirugarrena. Hitzarmenaren xedea betetzea edo ez betetzea.

Ezinbesteko arrazoiengatik, legearen aginduz, teknika beharregatik, edo udalez gaindiko eta/edo jurisdikzioko erakundeen jazarpenagatik hitzarmen hau zapuztu, gainditu eta/edo izaera galtzekotan, hura ondoriorik gabe geratuko da eta aldeek ez dute elkarri ezer erreklamatzekorik haren edukiari buruz.

Hitzarmenaren xedea ez bada gauzatzen aldeetako edozeinek itun honetan hartutako betebeharrak zabarkeriaz edo bere erruz ez betetzeagatik, bere konpromisoak bete dituen aldeak beste aldeari eskatu ahal izango dio benetan bete ditzala eta, edozein kasutan, ez-betetze horren ondorioz izandako kalte frogagarriak ordaindu ditzala.

Alegría-Dulantzi, 2016ko azaroaren 18a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA